



**H**ezkuntza ezinbesteko elementua da hiritarren garapen eta errealizazio pertsonal eta sozialerako. Hezkuntza Laguntzaren Premia Bereziak dituzten pertsonak Hizkuntza Eskola Ofizialetan matrikulatu eta ikasketak gainerako pertsonen baldintza berberetan egin ahal izango dituztela bermatzea agindu etikoa da hezkuntza eta gizarte inklusiborako bidean. Horretarako Bermeoko Hizkuntza Ofizialean ondo bermatuko ditugu, pertsona horien guztien aukera berdintasunari, diskriminazio ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko eta ekintza positiboko neurriak xedatzen dituzten arauak, esateko baterako, denentzako irisgarritasuna, parte hartzea eta diskriminazio eza.

Horrela dago jasota hainbat arautegitan, besteak beste, Pertsona horien aukera berdintasunari, diskriminazio ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legean, maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan (HLO), 46/2009 dekretuan, otsailaren 24koa, honen bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailetako-oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila-curriculumuma ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira, 2013ko uztailaren 3ko aginduan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskola ofizialetan ikasleak onartu eta matrikulatzeari buruzkoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako aurrez aurreko eta semi-presentziatzeko hizkuntza-ikastaro ofizialetan ikasleak 2016-2017 ikasterterako onartu eta matrikulatzeko prozedura arautzen duen Ikastetxeen zuzendariaren 2016ko ekainaren 23ko ebazpenean.